

UPV/EHUko SAILETAN IKERKUNTZA SUSTATZEKO DEIALDIA (2020-2022):

1. fasea

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) oniritzia emanda, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE)

UPV/EHUko SAILETAN IKERKUNTZA SUSTATZEKO DEIALDIA (2020-2022)

argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, IAEk aurkeztutako eskaerak berrikusi zituen.

Tramite horrekin amaitutakoan, onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen IAEn webgunean, zuzenketak egin behar zituzten eskaerak zehaztuz ere.

Zuzenketak egiteko epea amaituta, IAEk ERABAKI DU onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda bere webgunean argitaratzea, ebaluazio fasera igarotze aldera.

Behin betiko baztertutako eskaerak dira deialdiak ezarritako onarpen baldintzaren bat bete ez dutenak, ebazpen honekin batera doan zerrendak zehazten duen bezala.

Helegiteak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazioarekiko errekurtsu hau jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsi dela ulertu beharko da administrazioaren isiltasunagatik; eta, honela gertatuz gero, datorren idatz zatian ezarritako auzibidera jotzeko aukera izango da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legea).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen

jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2020ko otsailaren 3an.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
Ikerketaren arloko Errektoreordetza

Onartutako sailak

Kodea	Saila	Eskaera zk.
16	Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea	DEP20/03
26	Farmakologia	DEP20/44
36	Ekonomia Aplikatua I	DEP20/49
39	Kimika Fisikoa	DEP20/47
40	Kimika Organikoa I	DEP20/35
45	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika	DEP20/42
46	Gorputz eta Kirol Hezkuntza	DEP20/12
48	Didaktika eta Eskola Antolakuntza	DEP20/05
57	Fisika Aplikatua I	DEP20/34
69	Ingeniaritza Kimikoa	DEP20/01
76	Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia	DEP20/37
77	Zelulen Biologia eta Histologia	DEP20/39
79	Erizaintza II	DEP20/20
81	Fisiologia	DEP20/25
84	Medikuntza	DEP20/15
87	Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia	DEP20/07
90	Finantza Ekonomia I (Enpresen Kontabilitatea eta Administrazioa)	DEP20/10
93	Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	DEP20/38
101	Farmazia eta Elikagaien Zientziak	DEP20/40
106	Ikasketa Klasikoak	DEP20/17
112	Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza	DEP20/04
114	Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak	DEP20/33
136	Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak	DEP20/30
139	Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia	DEP20/06
140	Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala	DEP20/43
141	Hizkuntza eta Sistema Informatikoak	DEP20/22
142	Ingeniaritza Elektrikoa	DEP20/50
144	Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa	DEP20/19
145	Ingeniaritza Mekanikoa	DEP20/11
146	Sistemen Ingeniaritza eta Automatika	DEP20/08
155	Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia	DEP20/23
171	Kimika Analitikoa	DEP20/51
224	Elektrizitatea eta Elektronika	DEP20/14
236	Komunikazioen Ingeniaritza	DEP20/21
237	Teknologia Elektronikoa	DEP20/26

Akatsen zuzenketaren ondorioz onartutako sailak:

Kodea	Saila	Kodea
21	Historia Garaikidea	DEP20/45
42	Biokimika eta Biologia Molekularra	DEP20/28
51	Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	DEP20/31
66	Matematika Aplikatua	DEP20/18
78	Erizaintza	DEP20/32
118	Landareen Biologia eta Ekologia	DEP20/27
163	Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia	DEP20/02
166	Finantza Ekonomia II (Enpresa Ekonomia eta Merkaturatzea)	DEP20/46
212	Neurozientziak	DEP20/41
221	Kimika Aplikatua	DEP20/16

Baztertutako sailak:

Kodea	Saila	Baztertzeko arrazoa
19	Pediatria	Aurkezteke
25	Itsasketa Zientzia eta Teknikak, Itsasontzi Makinak eta Itsasontzigintza	Aurkezteke
28	Artearen Historia eta Musika	Aurkezteke
54	Enpresen Antolakuntza	Aurkezteke
83	Dermatologia, Oftalmologia eta Otorrinolaringologia	Aurkezteke
94	Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak	Aurkezteke
95	Estomatologia I	Aurkezteke
98	Estomatologia II	Aurkezteke
103	Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa	Aurkezteke
113	Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa	Aurkezteke
115	Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia	Epez kanpo aurkeztu du eskaera
137	Arkitektura	Ez du zuzendu
151	Meatze eta Metalurgia Ingeniaritza eta Materialen Zientzia	Aurkezteke
158	Irudigintza	Aurkezteke
160	Zuzenbide Publikoa	Aurkezteke
227	Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haien Garapena	Aurkezteke
233	Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia	Aurkezteke
1591	Margolaritza	Aurkezteke